

I ASTE HUNTAKO ELHEKETA.

- ① Xaramela, a bestia, eresia.
 ② Kattalinen utegoa eresientzat.
 ③ Zertako gaiztesten dituarte Maria eta Katerina

II SORGINAK - 2.

LUIXAK.—Biba zu ama! Badut uste Jaun Erretorak ere ez duen zuk bezen pulliki xaramelatzen, ez eta ere Luziako Petti orro-handi harek. Uste du ba gaizoak, bainan akerraren adarrak bezain makurreko boza du *Kanttarik!*...

KATTALINEK.—Eta zer ahapaldi pullita, ama! Uste dut, pullitaren pullitez, jadanik ikasia ere dugun Luixak eta nik; hean, goazin, hiruek betan:

Orbiko xoria *Orbin* bakean da bizitzent,
 Bere larre sasietan ez da hura unhatzen;
 Han zen sorthu, han handitu, han ari zen maitatzent,
 Han bere umen artean, gozoki du kantatzent!

KATTALINEK.—Ikusten duzu, ama, hean buru ona duten zure haurrek? Berriz ere erraiteko, zer aire pullita! “Viens pourpoule”, eta “La Madelon” bera ere hitsak zaizkit segur, horren aldean!

XOBADINAK.—Bai, haurrek, biba gure xoko! Eta oiloak bere xitoak bezala, begira dezagun xokoño hori, nondik nahi ager ditezen miruak.

KATTALINEK.—Miriak? Ori, ama, hirri eginen duzu, bainan iduri zaut biga badazkitala, gure etxeko xokoñoa nahasi nahi luketenak, eta nahasten ere dutenak, nere arabera...

LUIXAK.—Hoi bera heldu zitzautan orai gogora, Kattalin!...

XOBADINAK.—Nor bada, haurrek?

LUIXAK eta KATTALINEK.—*Maria Elborri eta Xaneta Xista.*

XOBADINAK.—Xaneta, Maria?... Egia da, haurrek, ez zinduzketala heien idurikoak ikusi nahi!...

LUIXAK.—Heien idurikoak! Fa! zer aintzinekoak guretzat!

KATTALINEK.—Lurraren gainean egundaino ez ahal da bi liztor horiek bezalakorik ikusi! Hoik, hoik! zer prendak!...

II

AINTZINEKOAK ETA JOANNA, KATIXA,
 JOSEPA, BENITA

Hemen sartzen dire, aribo xuritzerat heldu hek ere:

Joanna, Katixa, Josepa eta Benita.

JOANNAK.—Nortaz zinduten bada solasa?... Eta lehenik, Jainkoak dautzuetela gau on!... Nungo prendak zinduzten hola aiphatzen? Ez gu, balinba?

KATALINEK.—Zuek?... Bai zera! *Maria Elborri eta Xaneta Xista* ginituen aiphu.

KATIXAK.—Hola nunbait han!

XOBADINAK.—Eta gero, uste baduzue gogo onez onhatzen ditugula *Bordaxurian!* Ongi enganatzen zaitze. Ezin berzean diotegu athea zabaltzen. Zimitzak ere ezin bertzean atxikitzen dira etxeak, Josepa!

III ADITZ IKASKUNTZA.

31. Hitsak zaizkit—32 Heldu zitzauta
 33. Nortaz zinduzten—34 Ez zinduz ketala

31. IZAN. Régime Indirect. Indicatif présent
Pluriel = Heick dire = ils sont.

Heick = (eux) Zaizkit (à moi) = Ils me sont.
 Zaizkigu (à vous) = Ils vous sont
 Zaizkio (à lui) = „ lui sont
 Zaizkigu (à nous) = „ nous sont
 Zaizkigie (à vous) = „ vous sont
 Zaizkie (à eux) = „ leur sont

32. IZAN. Régime indirect. Indicatif imparfait
Singulier Hura zen = il était

Hura (lui) Zitzaitan (à moi) = Il m'était
 Zitzaign (à vous) = Il vous était
 Zitzaien (à lui) = „ lui était
 Zitzaign (à nous) = „ nous étions
 Zitzaignen (à vous) = „ vous étiez
 Zitzaien (à eux) = „ leur étaient

33 UKAN. Conjugaison transitive à Cplt direct
Pronom personnel = vous pluriel

Indicatif = Présent
 Nik zaituztet = je vous ai
 Harek zaituzte = il vous a
 Guik zaituztegu = nous vous avons
 Heick zaituztete (1) = ils vous ont

Imparfait
 Nik zintuztedan = je vous avais
 Harek zintuzten = il vous avait
 Guik zintuztegen = nous vous avions
 Heick zintuzteten (1) = ils vous avaient
 Cosi: Perph. Ikusten zintuztedan = je vous avais vu